

# Aretxagazeta

ETA GAINERA...

## Ze barri?

GAIA

Lurdes Umerez  
eskultorea /8

GIZARTEA

Drogen gaineko  
erakusketa /9

LEINTZ GATZAGA

Kintoen  
erretratu zaharra /10



## GERRA ZIBILEAN FUSILATUTAKO ARETXABALETARRAK

Fusilatutako  
aretxabaletar  
batzuen hezurak  
Oartzungo  
kanposantuan  
lurperatu zituzten  
1977. urtean.

**GUARDIAKOFARMAZIA**

**ZAPATUA, 8**  
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. . . . . 943 79 21 99

**DOMEKA, 9**  
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. . . . . 943 79 21 99

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

<b>OROKORRAK</b>	
Almen . . . . .	943 71 49 07
ARETXAGAZETA . . . . .	943 79 86 21
Faxa . . . . .	943 77 18 54
Basotoa . . . . .	943 77 09 81
Euskaltegia . . . . .	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea . . . . .	943 71 18 62
Hezibide elkarte . . . . .	934 79 31 32
Industrialdea . . . . .	943 79 62 80
Institutua . . . . .	943 79 79 00
Kirol etxea . . . . .	943 71 26 28
Kultura etxea . . . . .	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola . . . . .	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI . . . . .	943 79 57 40
Liburutegia . . . . .	943 71 18 62
Loramendi EE . . . . .	943 77 09 70
Ludoteka . . . . .	943 79 05 81
Mankomunitatea . . . . .	943 79 30 90
Murruxiko ME . . . . .	943 79 93 74
Musika Eskola . . . . .	943 79 36 50
Osasun etxea . . . . .	943 71 19 59
Otalora . . . . .	943 71 24 06
Panrokia (bulegoa) . . . . .	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola . . . . .	943 77 03 77
Postetxea . . . . .	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea . . . . .	943 79 17 00
Saretxo . . . . .	943 71 26 56
Taxi geltokia . . . . .	943 79 22 33
Udal Bulegoak . . . . .	943 71 18 62
Udalzaingoa . . . . .	943 71 18 63
Urats Gain . . . . .	943 79 99 11
<b>UDALZAIINGOA</b>	
Arasate . . . . .	943 79 14 39

**OHARRAK**

**SANTA AGEDA MUTILAK**  
Santa Ageda egunean hasi eta Aratuste-domekara bitartean, domekero egingo dute dantzan Santa Ageda mutilek, Herriko Plazan, 19:00etan.

**MURRUKIXOK ESKI IRTEERA ANTOLATU DU**  
Murruxiko MEk eski irteera antolatu du otsailaren 22an eta 23an Luz Ardidenera. Izena emateko, Murruxikoko egoitzaetik pasatu, martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara bitartean.

**1977AN JAIOTAKOEN KINTO BAZKARIA**  
Otsailaren 22an, 1977an jaiotako kintoek bazkaria egingo dute. Izena emateko epea otsailaren 9an amaituko da. Izenematea, Urbaltzen, 10 euroren truke.

**BASOTXOKO ERRETIRATUEK, BENIDORMERA BIDAIA JOSTEKO AUKERA**  
Basotxoko erretiratuek apirilaren 27tik maiatzaren 11ra bitartean Bendidormera bidaia egingo dute. Interesatuok, eman izena lehenbailehen Basotxon.

**ZORIONAGURRAK**



ARETXABAETA  
**Ane Dacosta**  
30ean, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat, Boliñako guztien partetik.



ESKORIATZA  
**Jose Luis Herrera**  
31n. Zorionak eta urte askotarako, emaztearen eta semearen partetik.



ESKORIATZA  
**Olaia Benito**  
4an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, Josune lehengusinarekin partetik.



ESKORIATZA  
**Mikel Beloki**  
5ean, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABAETA  
**Alberto Ugalde**  
7an. Zorionak eta urte askotarako, Maitaneren partetik.



ARETXABAETA  
**Mainer Elorza**  
9an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, Almengo lagunen partetik.

**MARIA JESUS**  **CREATIVO**

**ARGAZKIGINTZA ESTUDIOA**

*Modazko Book-ak*

Ezteiak Jaunartzeak  Publizitateko Argazkiak

Zaharberritzeak, Errebelatuak, Argazki Digitala, eta Karnekerako Argazkiak.

ARABA IBILBIDEA 27 1- D ARETXABAETA (GIPUZKOA)  
943 771255 - 656 732463 shibat@wanadoo.es

**LIBURUTEGIKOTXOKOA**

**'Almanaka 2003'**

Honako hau almanaka edo egutegi modura antolatutako sukaldaritza liburua da. Bertan, egun bakoitzeko izendegia, eguzkia noiz irten eta sartzen den, sukaldaritza errezeptak, atsotitzen bat, sukaldariko aholkuak eta beste hainbat gauza bitxi aurkituko dituzue. Betiere modu jostagarrian, egunero ataltxo bat irakurtzeko edo saltoka irakurtzeko aukera ere ematen du. Liburuaren hasieran urte osoko azoka, feriak, lehiaketak eta erakusketak dakartza; hilabete bakoitzaren hasieran, berri, ospakizun eta jaien aipamenak. Liburu mardula eta erabilgarria sukalde inguruan ibiltzen den edonorendako.



**ASE ETA GOSE: ALMANAKA 2003**

**Edorta Agirre**  
Pamiela, 2002  
421 orrialde

Edorta Agirrek *Euskaldunon Egunkaria*-n atera izan ditu hemen agertzen diren antzeko hainbat artikulu, *Ase eta gose* izenburupean.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

**KURTZEBARRI ESKOLA**  
2-12 urte bitartekoentzat



**KURTZEBARRI BHI**  
12-16 urte bitartekoentzat



**MATRIKULA EPEA: otsailaren 3tik 15era arte**



- Integratzailea: euskal kultura garatzen du, eta beste kulturak era egokian geureganatu eta garatzen ditugu.
- Pertsonen arteko harremanak bultzatzen ditugu.
- Sortzailea eta autonomia.
- Ikastetxeen arteko loturak sustatzen ditugu.



Telefonoa / Faxe: 943 79 00 49  
e-maila: kurtzeba@teleline.es

Telefonoa / Faxe: 943 79 57 40  
e-maila: 012945aa@hezkuntza.net



Debagoieneko Euskal Eskola Publikoa



Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa


## ATREBENTZIAEZPADA/ Bazara kirol etxeko bazkide? Txartel bateratue atarako zeuke?



**UNAI KEREXETA**  
Langillie



**LOREA GABILONDO**  
Ikaslie



**RICHAR DE GOÑI**  
Langillie



**ANTONIO PILO**  
Langillie



**MIREN IGARTUA**  
Ikaslie



**JOSELIN VIEIRA**  
Langillie

Bai, oin dala urtebete egin nitzen kirol etxeko bazkide. Txartel bateratuana idea ona dala pentsetan jat, baiñe, neure ustez, herriko kirol etxekue bakarrik eukitte nahikue da.

Ez. Ez naz sekula bazkide izen. Lehenago aerobika egitten neuen, baiñe oin ez dauket astirik eta ez dot ezelako kirol egitten. Txartel bateratuana idea ona dala uste dot.

Ez, Bergarakue naz-eta. Urtarrillien bertan Debagoieneko txartel bateratue atara neuen. Idea ona euki daue. Oin, adibidez, Bergarako igerilekue itxitte dau, eta hona etorri neike.

Bai, aurten atara dot kirol etxeko txartela. Bateratue ez dot egin; izen be, oingoz nahikue dauket herriko txartelakin. Oin, gimnasia faten hasi naz, sasoi en egoteko-edo.

Bai, txikittatik naz bazkide. Hala eta be, ez naz sarri faten kirol etxera; uda aldien sekula igerilekura... Baiñe gutxittan. Oingoz ez dauket txartel bateratue atarateko asmorik.

Ez. Oin dala gutxi etorri naz Brasilletik Aretxabaletara, eta ez dot aukerarik euki. Hala eta be, kirola asko gustetan jat, eta etorkizunien, iguel, bazkide egingo naz kirol etxien.

### TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK BIDEGORRIKO MOTORDUNEI** Bidegorriak oinezko-ondako izan ohi dira, eta Urkulurakoa ere asmo horrekin egin zuten. Edozelan ere, batzuek mendiko motoan ibiltzeko leku aproposa dela ikusi dute, antza. Menditik buelta eman eta gero bidegorritik behera herrira jaisten dira. Lerro hauetatik, txistuak, ibilbide hori egiteko ohitura hartu duten motordun guztiei./A. L

### ETABARRUAN...

ASTEKO GAIA /4

#### Gerra garaian fusilatutakoak

Gerran ibarreko ehun lagun inguru hil zituzten, fusilatuta; horien artean, hainbat aretxabaletar.

KOMUNIKAZIOA /5

#### Euskaltel, zuntz optikoa sartzen

Markole aldea eta Loramendi kalea dagoeneko zulatu dituzte, Euskalte-len zuntz optikoa sartzeko.

KIROLAK /6

#### Kirol etxeko bazkideak

Azken urteotako datuen arabera, kirol etxeko bazkide kopuruak eta erabilerak gora egin dute.

### ASTEKODATUA

# 193

#### HERRITARREK EGIN DUTE TXARTEL BATERATUA

Atera dute Debagoieneko txartel bateratua, eta Aretxabaletan dagoeneko 193 herritarrek eskuratu dute. Hala, horiek aukera izango dute beste herri batzuetako kiroldegietara joateko.


### BESTE EKESANA

**“Gure bailara ezagueraren lurraldea izaten ari da; hor daukagu Mondragon Unibertsitatea,**

**Garaia proiektua... Beraz, horrek esan nahi du gure bailara honetan ezagueraren erabilpen eta garapenak gure identitate direla. Dinamika horretan, Aretxabaletak zer paper joka dezake? Aurretik aipatutako proiektuak Arrasaten kokatu dira gehienbat, beraz, guk zer egin dezakegun galderari erantzuna ematen saiatu behar gara. Ezagueraren munduan hainbat teknikari, zientzialari eta irakasle ditugunez gure herri hau gero eta interesgarriagoa bihurtzen saiatu beharko liriteke, batez ere bidezko etxebizitzak lortuz eta ingurunea ere modernizatuz, hau da, kalitatezko herria eskainiz.**

**PEDRO MENDIETA**  
Goitb/03-01-28

### HERRITARRENBERBAK/ Aitor Agiriano



#### Ahariaren bakea

**N**ormalean irakurri ohi ez dudan testu baten –“testua” diot, propagandarik ez egitearren-, otsailaren lehen egunarekin bateratsu, txinatarrek, hilabetea ez ezik, urte berri berezi bat hasi dutela ohartu naiz. *Carnero de Agua* delakoaren urtea izango den honetan, zenbait igarlek antzinako Erroman bezala, hegaztien hegada eta kantuei eta zeruaren zantzuei behatuz egindako iragarpenen arabera, aipatutako ahariak bakea omen dakarrela iragarri dute. Etorkizuneko egitasmoak dira, dudarik gabe, itxaropenaren elikagai; esperantza baita zorionari egin ohi zaion mailegua. Alabaina, urtea bukatzerako bakea izango dugula sinestea, askori errez bezain neke zait niri behintzat.

Munduan ediren ditzakegun gerra, gosete, nahiz bestelako egoera makurrek, ez dute berezko, ez eta kasualitatezko iturbururik; jatorrian, nabar-

men, gizakiaren eskua dago. Edariak egarria eta jatekoak gosea asetzen badu ere, urreak ez du sekula diruzalekeria itzaltzen. Gainera, bake hitzaren esanahia bera, lausoa da. Batzuen bakea besteen gerra da. Kontraesan horrek, batak besteari errua atxikiz, sintesirik gabeko dialektika du akabuan: batek arre eta besteak iso. Are okerrago, komunikabideek indar demasa duten garaiotan; bando bakoitzak bere lubakia duelako. Ados nago, mihiz egindako zauriak sablearekin egindakoak baino arriskutsuagoak direla dioen arabiar esaerarekin.

Haize eta olatuak marinela trebeen eskura egon izan diren legez, zenbait gertaera gris, manipulatu eta, aurkaria larrutzeko probetxugarri dira (hor ditugu Irailaren 11koaren ondorenak). Esan gabe doa, giza ekintzak ez ditugula benetan direnagatik epaitzen, gustatzen zaizkigulako edo ez baizik.

**“Edariak egarria eta jatekoak gosea asetzen badu ere, urreak ez du sekula diruzalekeria itzaltzen”**

# Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA  
Goio Arana

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

## Izen ezagunak

Herri txikia da gurea, baina ez gara gero geldi egotekoak. Musikan eta hizkuntza arloan gustura aritzen garela erakutsi dugu berriro ere. **Julen Cobosen** Bat Gehio musika taldeak Baionako Gure Irratiak antolatuta-ko lehiaketa irabazi du. Bartzelonan bizi da Julen eta Bat Gehio taldeko abeslaria da. Zorionak mutil, eta ia herrira noiz zatozen emanaldi bat egitera.

Euskararen munduan, bestalde, urrun iritsi zaigu **Miriam Urkia**. Euskaltzain urgazle izendatu dute. A ze errekonozimendua! Jarraitu horrela Miriam, euskararen alde lanean.

Eta euskararen munduan jarraituz, baina herritik atera gabe, **Loramendi EEn Nerea Elorzak** utzitako hutsunea beteko du hemendik aurrera **Josu Zaloña**. Honek ere ez du lan makala aurrez aurre. Lan berriaren gorabeherak ikasi, eta herrian euskarekin zerikusia duten ekintzak dinamizatu. Zorte on lan berrian!

**Gorka Uriarte** ile-apaintzailea ere aipatu beharrean nago, izan ere Bartzelonako Gaudi moda erakustokira joan da. Gero, oster, New Yorkera ei doa anaia bisitatu eta hiria ezagutzera.

Bukatze, gogoratu mozorroa prestatzen hasi beharrean gaudela.

**HISTORIA/** Aretxabaleta inguruan hainbat lagun ei daude lurperatuta

# Gerran fusilatu zituzten aretxabaletarrak gogoan

MIRARI ALTUBE

Gerra garaian hil zituztenen izen ona berreskuratzeko asmoz, batzordea sortu da oraintsu ibarrean. Ehun lagun inguru hil edo desagertu ziren; tartean, lau aretxabaletar. Eta laurak kanpoan lurperatuta daude. Baina Aretxabaletan bertan ere hil eta lurperatu ei zituzten hainbat soldadu.

Joan den astean aurkeztu zuten 36ko gerran hil zituztenak gogoratzeko sortu den batzordea. Arrasaten aurkeztu zuten, eta, besteak beste, Angel Zubillaga izan zen han. Jakina da, ordea, Angelen aitaitaz gain, beste hiru aretxabaletar ere fusilatu zituztela.

### OIARTZUNEN LURPERATUTA

Angelek aitaita galdu zuen gerran: Isidoro Garciaetxabe. Desagerpen haren gainean datu gutxi dituzte etxean, baina Ondarretako kartzelan (Donostia) egon zela uste dute: "Aitonaren aita Ondarretako kartzelara joan zen haren bila, baina han libre utzi zutela esan zioten. Geroago, Oiartzunen fusilatu zutela jakin zuten etxean".

Martzelino Ugaldere aita, Martzelino Ugalde hura ere, gerra garaian hil zuten. Mondragoetik Donostiara eroan zuten, eta Donostiatik Oiartzunera zeramatela kamioitik salto egin, eta ihes egin zuen. Salto egiterakoan orkatilan min hartu, eta Oiartzungo base-ri batera inguratu zen laguntza eske: "Baserrian lehenengo jaten eman zioten, baina gero norbaitek salatu, eta ihes egin guran zebilela hil zuten. 1977ra arte baserriaren aldamenean egon zen lurperatuta", dio Martzelinok. Hala, urte hartan (1977) Oiartzunen agertutako hezurak atera, eta bertako kanposantura eraman zituzten; panteoi baten sartu zituzten. Bai Martzelino bai Angel, biak izan ziren ekitaldi hartan.

Felix Alberdi, Amaia Alberdi-diren aita, oster, Bilbon atxilotu zuten, Larrinagan, eta fusilatu ere han bertan egin zuten. 33 urte zituen. Amaiak ez zuen ezagutu, baina aitak kartzelatik bida-



JON KEPA ZUBILLAGA

Fusilatutako aretxabaletarren hezurak lurperatu zituzten Oiartzungo kanposantuan.

litako lau gutun dauzka gordeta.

### HILOBIAK ALMEN INGURUAN

Lau aretxabaletar horiek kanpoan fusilatu eta lurperatu zituzten. Edozelan ere, Aretxabaletan bertan ere izan zen gerra, eta hainbat lagun hil zituztela eta lur eman zietela uste da.

Gerraren gainean berba egiteak beldurra sortarazten du oraindik ere, eta lurperatze horien testigu izan zenak ez digu ezer kontatu gura izan. Hala ere, badakigu Aretxabaleta eta Eskoriatza artean, Almen inguruan, lagun bat baino gehiago lurperatu ei zituztela.

## Aretxabaletan gertatutakoak

Gasteizko *La Libertad* egunkariak gure ibarreko hainbat berri jaso zituen gerra garaian. Hona hemen pasarte bat:

"Eskoriatzan Aretxabaletara heltzeko arazoak daudela diosku. Baina aurrera goaz. Errotaraino heldu gara; bertan behin-behineko telefonoa jarri dute. (...).

Atzo fusilatu zituzten lau gorri lurperatu berri dituzte. Armak zituztela atzemandako miliziano gorriak ziren. (...). Fusilatutakoaren artean Gasteizko gazte bat zegoela esan ziguten. Hildakoak, oraintsu arte Araban kargu publikoak izan duen anaia dauka, eta beste frente bateko burua da. Bera ote zen zalantza izan zuenik ere badago, baina, egia esan, fusilatutakoaren artean bat ez zen baserri-tarra, soldadu jantziaren azpian frakak baitzituen eta alkandoraren azpian jertsea zeukan jantzita".

## LABUR

### Aretxabaletan jarriko den KZ Gunerako langileak

Martxoan inguruan KZ Gunea jarriko dute Aretxabaletan, Markole aldean hain zuzen, eta bertan lan egiteko langile bi behar dira. Interesatuak curriculumak udaletxean utzi behar dituzte kulturarako direla esanaz. Hala ere udalak argi utzi gura du kontratuak ez dituela berak egingo.

### Miriam Urkia euskaltzain urgazle izendatu dute


Hiztegi Batua osatzen dabilen lantaldeko kideak urgazle izendatzea erabaki du Euskaltzaindiak. Lantalde horretan aretxabaletar bat dago: Miriam Urkia. Izendapenarekin, egiten dabilzan lana eskertu gura die Euskaltzaindiak, aurrerantzean ere lanean gogoz jarrai dezaten.

### Kepa Urrari babesa eskaintzera joango dira Coruña

Gaur, egubakoitza, irtengo da autobusa Aretxabaletatik Coruña. Curtisko kartzelan txapeoan dagoen Kepa Urrari babesa eskaini gura diote hara joango diren lagunak. Edozelan ere, ezin izango dute Kepa ikusi, baina hura jakinaren gainean dago, eta igarriko du lagun berotasuna.

### Josu Zaloña, Loramendi Eeko langile berria

Loramendi Euskara Elkarteak langile berria dauka: Josu Zaloña aretxabaletarra. Nerea Elorzak utzitako hutsunea beteko du Josuk, eta herrian euskara bultzatzeko eta normalizatzeko egin beharrekoak antolatzea izango da haren lana: lehiaketak, ikastaroak, kontzertuak...




Aretxabaletako Industrialdea F-0-4  
Tfnoa.: 943 791844 / Faxes: 943 792941

20550 ARETXABAleta  
info@eguzkigraf.com



**EGUZZKIGRAF** inprimategia

## BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantentimientua
- Beiran naiz metakrilatoan neurria eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

**LANAK/** Telefono konpainiaren helburua atarte guztietaraino sartzea da

# Hasi da zuntz optikoa sartzen Euskaltel konpainia

MIRARI ALTUBE

Laster baten, hankaz gora izango ditugu berriro ere herriko kaleak. Kirol etxearen inguruan eta Loramendi kalean dagoeneko hasi ditu Euskaltel-ek zuntz optikoa sartzeko lanak, eta poliki-poliki kale guztiak zulatuko dituzte, atarte guztietara hel dadin.

Aretxabaletako Udalak azaroan onartu zuen telekomunikazio tresnen eta elementuen kokapena, instalakuntza eta funtzionamendua arautzen dituen baldintza urbanistikoen gaineko ordenantza. Hori aprobetxatuta, Euskaltel telefono konpainia dagoeneko hasi da herrian zuntz optikoa sartzen.

### KALEAK, HANKAZ GORA

Markole aldea eta Loramendi kalea zulatuta daude eta laster herri guztia zulatuko digute, zuntz optikoa sartzeko. Euskaltelen asmoa zuntza atarte guztietara helaraztea da, eta, horren ondoren, bizilagun bakoitzak erabaki dezala etxean sartu gura duen edo ez, gasarekin egin zen bezala.

Kaleak zulatu eta zuntza sartzeko ardura enpresa biri eman dio Euskaltel-ek: FOC-i eta Amarali. Zuloak ez dira oso handiak izango: 50 cm zabal eta 80 cm sakon; gas hodiaren parean. Zuloak handiak ez badira ere, herria hankaz gora jartzeko adinakoak izango dira.



AMAGOIA LASAGABASTER

Dagoeneko hasi da Euskaltel konpainia zuntz optikoa sartzen herrian.

### ZUNTZ BIDEZKO ZERBITZUAK

Euskaltel-ek atarteetako ardura dunekin berba egin du azken hila-beteotan, zuntza atarteraino sartzea gura duten edo ez jakiteko. Atarteraino sartu ostean, norberak aukeratuko du etxera sartu gura duen edo ez. Sartzea eraba-

kiz gero, telefonoa, Internet eta telebista zuntz bidez joango dira. Euskaltelen esanetan, alta ematea doan izango da, eta gero, norberak aukeratuko du zein pakete gura duen: oinarrikoa (18 telebista kate) edo digitala (50 telebista kate).

## TXUTXUMUTXUA



### Santa Ageda mutilak, aurten, blai eginda

Martitzenean, Santa Ageda bezperan, euripean ibili ziren Santa Ageda mutilak baserriz baserri eskean. 06:00etan puntuan bota zuten irteera adierazten zuen etxafuegoa, eta herriko baserri guztietatik pasatzen ahalegindu ziren. Hurrengo egunean, Santa Ageda egunean, ostera, kalean ibili ziren kantuan eta eskean. Ez ziren etxe guztietara heldu, baina bai gehientsuenetara. Arratsaldean, Herriko Plazan egin zuten dantzan, eta bai dotore egin ere batzuek. /M. A.

## LABUR

### Julen Cobos aretxabaletarraren taldeak Gure Irratiak antolatutako lehiaketa irabazi du

Baionako Gure Irratiak antolatutako musika lehiaketa irabazi du Julen Cobos aretxabaletarraren Bat Gehio taldeak. Kategoria bi zeuden lehiaketan, eta folkean irabazi du Jule-

nen taldeak. Hiru kantuz osatutako maketa bidali zuten; tartean, Interneten entzuteko dagoen *Bermioko marinela* abestia. Hala, Agorila diskoetxearekin diskoa grabatuko dute, sari gisa.

**ORAIN... SOLARIUM BERTIKALA**

**Kixkur**  
ILEAPAINDEGIA

Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABALETA

**IZOTZ Taberna**

Mitarte, 16  
Tel.: 79 73 65  
ARETXABALETA

**MAPFRE**  
Aseguroak

Errekabarren, 3  
Aretxabaleta  
Tel.: 943 77 11 76

**GARBITU S. KOOP**

*Garbiketa orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel: 943 79 01 28

**Zenbaki**

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

**Aholkularitza**

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

**Jou Diaz**

*Karakina*

Loramendi, 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

**CONSTRULAN S.L.**

**ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK**

Tel.: 943 79 01 51  
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:  
**Lyonel Arquero**

Dekorazioa:  
**Soraya Arquero**

KIROL ETXEA

## Kirol etxeak urte batetik bestera geroago eta bazkide gehiago ditu

Bazkideen artean, aurtan, 193 lagunek Debagoieneko txartel bateratua egin dute

AMAGOIA LASAGABASTER

**Kirol teknikari Asier Muxikak aditzera emandako datuen arabera, kirol etxeako bazkide kopuruak gora egin du azken urteotan. Bestalde, aurtan, Debagoieneko txartel bateratua ipini dute abian, eta dagoeneko 193 aretxabaletarrek ateratu dute txartel hori.**

Kirol etxeako arduradunak pozik daude kirol etxeako abonatu kopuruarekin eta erabilerarekin. Izan ere, Kirol teknikari Asier Muxikak emandako datuen arabera, azken urteotan kirol etxeako bazkide kopuruak eta erabilerak gora egin dute.

### TXARTEL BATERATUA

Kirol etxeako arduradunek urteko azken hilabeteetan batzen dituzte urteko bazkide kopuruaren eta erabileraren estatistikak. Hala, eman dituzten datuak 2002koak izan arren, oso esanguratsuak dira. Datu horien arabera, kirol etxeako abonatu kopuruak azken urteotan izandako bilakaera positiboa izan da. 2001etik hasi eta joan den urtera arte, abonatu kopurua ia %9 igo da; horrela, 2002. urte amaieran 2.029 bazkide zituen kirol etxeak.

Aurtengo datuei dagokienez, oraindik jendea bazkide txartela berritzen dabil; hortaz, ezin daiteke datu fidagarririk eman. Edozelan ere, aurtan, Debagoieneko txartel bateratua jarri dute



Joan de urtean, kirol etxeak bi mila bazkide baino gehiago zituen.

abian, eta dagoeneko hainbat herritarrek eskuratu dute. Hain zuzen ere, oraingoz, 193 aretxabaletarrek eskatu dute Debagoieneko txartel bateratua. Datu horiekin guzkiekin Asier Muxikak oso baikor azaldu da: "Hainbat herritan gimnasio pribatuak ireki dituzten arren, kirol etxeako eskaintzak oraindik indarra daukara erakusten du, eta hori oso positiboa da".

### OHARRA

Datorren astelehenean, hilaren 10ean, kirol etxean konponketa lanak egingo dituzte. Hori dela eta, otsailaren 14ra arte itxita egongo da. Lanak egin bitartean, Aretxabaletako kirol etxeako bazkide direnak Arrasateko kiroldegira doan sar daitezke. Aretxabaletako kirol etxean igerilekuko filtroak eta ur-depositua aldatuko dituzte, besteak beste.

FUTBOLA

### Gol zaparrada sartu zion preferente mailako UDA taldeak Gure Txokoari

Preferente mailako UDA taldeak, azkenean ere, golak egiteko gai dela erakutsi du. Joan den domekan, Gure Txokoa taldeari sekulako gol zaparrada sartu zion: 7-1 izan zen emaitza. Gure Txokoa taldea, UDA bezala, sailkapeneko beheko aldean dago; horregatik, Bittor Muxikaren mutilek bazekiten partidua derrigorrez irabazi beharrekoa zela.

Bestalde, oraingo domekan, hilaren 9an, Hondarribiaren aurka jokatu du preferente mailako UDAk, kanpoan, Hondarribian. Partidu garrantzitsua izango da, duda barik. Edozelan ere, UDAk etxean jokatu beharreko partidua guztiak irabaztea du helburu.

XAKEA

### Arlutz Xake Taldeak partida bi jokatu beharko ditu oraingo asteburuan

Joan den astean egindako elurak Arlutz Xake Taldeko jokalarientan ere izan zuen eragina. Aretxabaletarrek Mikel Gurea taldearen aurka neurtu behar zituzten indarrak otsailaren 1ean, baina elurak errepidean sortutako arazoengatik, partidak bertan behera geratu ziren. Hala, oraingo asteburuan, partida bi jokatu beharko dituzte: bata, Mikel Gurea taldearen aurka bertan behera gelditutako partidua izango da; eta bestea, Ruta de Europa lide-raren aurkakoa. Mikel Gurea taldearen aurka bihar, zapatua, jokatu dute, Arlutz taldearen egoitzan. Ruta de Europa taldearen aurka, berriz, domekan jokatu du Arlutzek, Gasteizen.

### PARTIDUAK

#### FUTBOLA

**UDA-Antzuola**  
Bigarren mailako erregionala.  
Zapatua, 17:30. Ibarra.  
**UDA-Aurrera Ondarroa**  
Lehenengo mailako kadeteak.  
Domeka, 11:00. Ibarra.

#### PILOTA

**Aretxab.(2)-Beloki (2)**  
Gazteak.  
Zapatua, 18:00. Iturrigorri.  
**Aretxab.(2)-Intxaur. (2)**  
Nagusiak.  
Zapatua, 18:00. Iturrigorri.

### EMAITZAK

#### FUTBOLA

**UDA 7 Gure Txokoa 1**  
Preferentea.  
**UDA 1 Euskalduna 3**  
Gazteen Euskal Liga.  
**Trintxerpe 3 UDA 2**  
Bigarren mailako erregionala.  
**UDA 1 Urki 0**  
Bigarren mailako gazteak.  
**UDA 0 Mundarro 0**  
Infantilak.  
**Lagun Onak 8 Almen/UDA 0**  
Emakumezkoen liga.

#### PILOTA

**Aretxab. 21 Eskoriatza 22**  
Gazteak.  
**Aretxab. 22 Azpeitia 16**  
Jubenilak.  
**Aretxab. 13 Goierrri 22**  
Nagusiak.

# LEIBAR

arrandegia



Mitarte Kalea, 1  
Tel.: 943 77 13 79  
Aretxabaleta

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 96 66  
Fax: 943 77 10 33

# BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak  
eta mortzilak

Durana, 9. Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 19 79

# Mobiliario ARENZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

# Zubia

oinetakoak

# beherapenak!

Mitarte 14 • 943 79 16 00 ARETXABALETA  
Biteri 1 • 943 79 66 53 ARRASATE




Herriko plaza z/g ARETXABALETA

# Maritxu

drogeria  
mertzeria

Araba Ibilbidea, 24  
Tel.: 943 79 23 53  
ARETXABALETA

**Dim barruko arropa**  
ANA'S JANTZIDENDA  
Iparragirre 4 Aretxabaleta



**Maitasunaren medaila**  
MARTIN ERLOJUTEGIA  
Mitarte 16 Aretxabaleta



**Cacharel lentzeria**  
ANA'S JANTZIDENDA  
Iparragirre 4 Aretxabaleta



**Intima Cherry lentzeria**  
LIE OPARIAK  
Mitarte 18 Aretxabaleta

**Arrosa-sorta**  
NERIAN LORADENDA  
Otalora 14 Aretxabaleta



**Pertegaz poltsa**  
PAGALDAI OPARIAK  
Durana 33 Aretxabaleta



**Cabotine perfumea**  
PAGALDAI OPARIAK  
Durana 33 Aretxabaleta



**Simone Perele lentzeria**  
XARMANTA OPARIAK  
Gaztainadui 21 Eskoriatza



**Maitasunaren medaila**  
MARTIN ERLOJUTEGIA  
Mitarte 16 Aretxabaleta

Otsailaren 14an  
**San Valentín**

# Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko otsailaren 7a / 112. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxe: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

**LURDES UMEREZ/ESKULTOREA**

## “Kataluniako lehenengo presidente izan zen Francesc Maciàren eskultura daukat orain esku artean”

AINTZANE GARDOKI

**L**urdes Umerez azkoitiarrak zazpi urte daramatza gure artean. Irakasle ikasketak egin zituen arren, eskultorea da. Orain, Kataluniako lehenengo presidente Francesc Maciàren irudia dabil egiten.

**Irakasle izateko egin zenituen ikasketak, ezta?**

Txiki-txikitatik margolari izan gura nuen. 18 urte bete nituenean, Arte Ederrak egin gura nituen, baina etxean ez zegoen horretarako dirurik. Gura izanez gero Eskoriatzan Irakasle ikasketak egiteko aukera eman zidaten etxean. Hala, goizetan ikasi eta arratsaldeetan Alecop-en lan egiten nuen. Dena dela, ikasketak amaituta ere, denbora laburrean ibili naiz irakasle lanetan.

**Artea duzu, hortaz, lanbide.**

Ez da lan erreza, baina ahalegintzen naiz. Irakasle ikasketak amaituta, buru-belarri murgildu nintzen gustuko nuen bidetik jarraitzeko. Debako Artisan Eskolan ibili nintzen, hiru urtez, eta Arte Ederretako lehenengo maila biak



JOTA ARRIETA

ere atera nituen. Gero, umeak zirela eta lana zela, bertan behera utzi nuen. Baina, egia esatearren, zortea izan dut; izan ere, eskultura ugari egiteko aukera izan dut azkeneko urteotan.

**Zein motatako eskulturak egiten dituzu?**

Brontzean egindako eskultura handiak egiten ditut; udalek eskatzen dizkidaten lanak egiten ditut, gehienbat. Gehienak ofizio zaharrek lotutakoak edo pertsonaia historikoak izaten dira.

**Bizkaian dituzu lanik gehienak.**

Bai, hala da: Mutrikun dago egin nuen lehenengo lana; eta Arrasaten dagoen astotxo ere lehentariakoa da; baina beste guztiak Bizkaian ditut: Galdakaon, Portugaleten, Artean, Leioan... Sopelan oraindik inauguratzeko daude egin ditudan azkenak: ume rockzalearena eta Joane Somarribaren omen jarriko duten neska txirridulariarena.

**Eta Kataluniatik jaso duzu azkeneko enkargua.**

Kataluniako lehenengo presidente Francesc Maciàren eskultura daukat orain esku artean. Bigarren Errepublikan presidente izan

zenaren ingurukoak bilatzen nabil buru-belarri. Ez dago agiri askorik, baina, ezertan hasi aurretik, haren fisionomia, mugitzeko era, egiten zituen keinuak... jakin behar dira.

**Aukeran izanez gero, zernolako eskultura egingo zenuke?**


Motiboari dagokionez, ez daukat oso argi, baina orain daukadan baino askatasun handiagorekin, modu espresionistagoan landuko nituzke irudiak. Marini eta Manzu italiarrek oso gai tradizionalak eta erlijiosoak lantzen dituzte, baina lan egiteko era askeak artista moderno bilakatzen ditu. Horixe bera gurako nuke nik, era libreagoan figurak egiteko aukera edukitzea.

**Eskolak ematen dio arteari behar duen garrantzia?**

Inondik inora. Nire ustez, lehen gutxi eta orain, are gutxiago. Oraindik ere bigarren mailako ikasgia da Artistika.

**Eskoriatzak izango du zuk egindako artelanik?**

Gurako nuke, baina nik neuk ere ez diot horrelakorik planteatu Udalari. Nork daki, agian, pentsatzen hasi behar...



## Eguraldi txarra izan dute lagun

Soldadutzara joango ez diren arren, astean barrena kantari eta dantzari ibili dira herriko Santa Ageda mutilak. Espainiako armadak XVII. mendean kintoen sistema ezarri zuen; Eta Eskoriatzara 1791n heldu zen sistema hori. Dena dela, gaur egun, kontuak oso bestelakoak dira.

Batzuei gehiago eta beste batzuei gutxiago kostatu zaie dantzan ikastea, baina guztia emango dutela esan ziguten. Ea, bada, aurtengoan, behintzat, herritarrek harro berba egiten duten kintoen gainean eta eguraldia den jai ilunduko duen bakarra!

## LABUR

### Garzón epailearen errekerimenduari luzapena eskatu

Auzitegi Nazionaletik bidalitako Garzón epailearen errekerimendua jaso dute udalletean. Horren arabera, hila-ren 17a bitartean dokumentazio ugari prestatu beharko dute Udaleko arduradunek; izan ere, 1979tik gaur arte Herri Batasuna, Euskal Herritarrok eta Batasuna alderdiek egindako interbentzioen, protesta ekin-tzen eta aurkeztutako mozioen aktak batu beharko dituzte. Alkateak esan digu oraingoz materiala batzeko denbora luze-agoa eskatuko diotela epaileari, eta gero gerokoak.



**TELEFONOJAKINGARRIAK**

<b>ESKORIATZA</b>	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

<b>BESTELAKOAK</b>	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Ofiati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Delak	112

**OHARRAK**

**AMUSKAREN IRTEERA**

Amuskak Gasteizera irteera antolatu du hilaren 22-rako; Artium eta alde zaharra ikusiko dituzte. Gasteizera joan gura duenak izena eman beharko du otsailaren 11n eta 12an, kultura etxean, 18:00etatik 19:00etara.

**HAUR HEZKUNTZA PROIEKTUAREN AURKEZPENA**

Arizmendi Ikastolak Haur Hezkuntzako Hezkuntza proiektua aurkeztuko du bihar, zapatua, Arrasateko Amaia Udal Antzokian, 11:30ean.

**AXTROKIRENAGENDA**

**KULTUR ERROTA AJENDA BATERATUA**

Axtroki Euskara Elkarteak ibarreko beste elkarteekin batera, Kultur Errota agenda bateratua antolatzen ari da. Datozen hilabeteetan hainbat ekintza izango da.

# 'Drogak: gizarte gaia' erakusketa jarriko dute ikusgai astelehenean

AMAGOIA LASAGABASTER

**Debagoieneko beste zenbait herritan egon ostean, orain, Prebentzio Zerbitzuko Eskoriatzara ekarriko dute Drogak: gizarte gaia izenburuko erakusketa. Hain zuzen ere, astelehenean, hilak 10, jarriko dute ikusgai kultura etxean eta astebete egongo da zabalik, hilaren 16ra arte.**

Drogek gure gizartean duten presentzia aditzera ematea du helburu *Drogak: gizarte gaia* erakusketak. Hainbat irudi eta erretraturen bitartez, drogen errealitatea islatzen saiatzen da datorren astelehenean, hilaren 10ean, ikusgai jarriko duten erakusketa. Gainera, drogak eurak aztertu beharrean, drogen errealitatea gizarte errealitateari lotuta lantzen du. Hala, Prebentzio Zerbitzuetako arduradun Myriam Beltran de Herediaren esanetan, erakusketak berebiziko garrantzia eta interesa du herritarrendako.

**LEGEZKOAK ETA LEGEZ KONTRAKOAK**

Myriam azpimarratu gura du erakusketak ez dituela *legezkoak* eta *legez kontrakoak* diren drogak bereizten. Era bietako drogak modu berean landu eta erakusten ditu erakusketak, eta, esaterako, alkoholarekin edo dopinarekin sortzen diren arazoak gainerako drogek sortzen dituzten arazoekin parean jartzen ditu. Bestalde, Myriam dio erakusketa baliagarria dela jendeak drogak marjinazioarekin lotzeko duen joera apurtzeko. Drogak eta marjinazioa gai moduan erakusten dituzte irudi batzuek, baina beste batzuek, adibidez, aisialdia eta drogak dituzte mintzagai. Eta, azkenik, drogek eragiten dituzten osasun arazoak, drogen gaineko politika eta drogazaleen eskubiak, besteak beste, jorratzen



Zuri-beltzeko hainbat erretratuk osatzen dute drogen gainean Eusko Jaurlaritzak antolatutako erakusketa.

ditu *Drogak: gizarte gaia* erakusketak.

**HELBURUAK**

Erakusketa ez dago gizarteko sektore bati bakarrik zuzenduta. Myriam gura du herritar guztiek bisita dezatela erakusketa. Azken baten, helburu da drogen gaur egungo egoera aditzera ematea eta hausnarketarako bideak

zabaltzea. Drogen gizarte errealitate hurreratzeko tresna izan gura du erakusketak.

Erakusketa astebetez egongo da ikusgai, herriko kultura etxean; hain zuzen, hilaren 10etik 16ra bitartean. Hala, astelehenezik zapatua bitartean, 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik eta domekan, 13:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

**LABUR**

**Ibarraundi jauregiko bigarren faseko lanak ere Mauricio Arregi enpresak egingo ditu**

Ibarraundi jauregia museo bihurtzeko egiten dabilzan berritze lanak aurrera doaz. Lehen faseko lanak -kanpoko aldetik berri- Mauricio Arregi enpresak egin zituen, eta bigarrenekoak ere hark egingo ditu. Hala erabaki zuen udalbatzarrak aurreko egunean, urtarrilaren 30ean.

Hasiera baten, Lanbide Hapeneko ikasleek egin behar zituzten bigarren faseko lanak, baina INEMek ez zuen hori onartu. Hori dela eta, Mauricio Arregi enpresari eman diote lanen ardura, eta zazpi hilabeteen bukatuta egotea espero dute, hau da, uztail ingururako.

**Unai Salaberriak urte bukaerara arte izango du kirol jarduera gestionatzeko ardura**

Kiroldegiko kirol jarduera gestionatzen duen Unai Salaberriari urtebetez luzatu diote kontratua. Zerbitzua lau urterako eman zioten, lau urtean behin kaleratzen dute-eta, eta orain, urte bukaerara arte luzatu diote.

Aurten, 1.145 bazkide ditu kiroldegiak. Horietatik 75 baz-

kide berriak dira. Debagoieneko txartel bateratua, ostera, 33 lagunek eskatu dute. Debagoienean, guztira, 912 lagunek egin dute txartel bateratua. Edozelan ere, Eskoriatzako kiroldegian lasai daude, orain arte behintzat, ibarreko beste herrietako bazkide gutxi etorri da-eta.

**LENIZ, C.B. KONPONKETAK**



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61



**IDORLETA**

Aranburuzabala, 22 behea ESKORIATZA Tfnoa.: 943 71 51 20



- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3 Tel.: 943 71 31 29 Eskoriatza 20540

## ERRETRATUZHARRA

Santa  
Agedaren  
omenez

**B**adira 46 urte ondoko argazkia atera zutela Gatzagako plazan. Benedikto Elkorobarrutia eta Angel Etxaniz izan ziren 1957an soldadutzara joateko adina zuten herriko mutil bakarrak. "Lehen, 21 urterekin izaten ginen kinto, 22 urterekin joaten ginen-eta soldadu", esan digu Benediktok. "Ez da sekula kinto kopuru handirik elkartu herrian. 59ko kintoak, adibidez, hamar bat izan ziren; bestela, gutxi izaten ginen. Baina sekula ez genuen arazorik izan Santa Ageda eguna ospatzeko; izan ere, aurreko urteko kintoak eta hurrengo urtean kinto izango zirenak batu egiten ginen".

Santa Ageda bezperan, goizeko zazpietan meza entzuten zuten mutilek. "Hiruzpalau etxafuego botatzen genituen herrian, eta baserri baserri kantuan eta batzen hasten ginen. Lehen, autorik ez zegoela-eta, ibilaldi osoa oinez egiten genuen", gaineratu digu Benediktok. Herria, berriz, arratsaldean egiten zuten. Eta kantatzen zituzten koplak Gatzagako bertako koplak zaharrak izaten ziren.



Santa Ageda egunean bazkaria egiten zuten kintoek Raflenean: "Zegoena jan eta aurrera! Arratsaldean neskei aureskua dantzatzeko genien, eta gero, mokadua egitera gonbidatzen genituen. Lehen, Santa Ageda eguna egun handia izaten zen herrian". Etxaniz, ama alarguna zuela-eta, ez zen soldadu joan.

Benediktok, berriz, 18 hilabete egin zituen Gasteizen eta Burgosen soldadu. "Nik ez daukat inolako kexarik. 1,80 metroekin eta 63 kilorekin joan nintzen, eta hiru hilabetean 1,60 metroekin eta 83 kilorekin itzuli nintzen etxera. Jan ederto eta lan batere ez!", esan digu Benediktok.

Argazkian, ezkerrean, Benedikto Elkorobarrutia agertzen da, Angel Etxanizen eta Eduardo Alonsoren artean dagoen Mertxe Aranburuzabalari aureskua dantzatzeko.

Argazkia: Mari Carmen Arana


Elurra  
mara-mara


Egubakoitzean, zuri-zuri esnatu zen herria. Eskolara jaisteko ziren ikasleak, autobusa ez zeterrela-eta, ezin jaitsita gelditu ziren. Herriko eskolako umeek, berriz, irakaslea ezin zela herrira heldu-eta, elurretan jolasean eman zuten eguna. Nagusi batek baino gehiagok ere, umeak aitzakia hartuta, zuritutako zelaietan gora eta behera orduak eman zituen. Jakin dugunez, gainera, etxean zituen arropa guztiak elurretan bustita, zapatu arratsaldean kalera ezin irtenda gelditu ei zen herritarren bat.

## LABUR

## Herriko umeek ez dute eskolarik izan hiru egunean

Luis Ezeiza Ikastetxeak Eskoriatzako eta Gatzagako umeendako hiru eguneko egonaldia antolatu zuen Gernikako Lurraskā aterpetxean. Eta, hain zuzen ere, herriko eskolan dabilzan 3 eta 5 urte arteko ume bi bakarrik joan ziren Lurraskara. Bi umeokin herriko irakaslea joan zen, eta, horren ondorioz, astelehenean, martitzenean eta eguaztenean herrian gelditu ziren umeek -2 urteko umeak barne- ez zuten eskolarik izan.



**FAGOR** 

Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, Elk. Koop.  
Gastafaduli auzoa 42  
20540 Eskoriatza  
Gipuzkoa  
Tel: +34 943 719 000  
Fax: +34 943 719 001



**AZKOAGA**  
ESTANKOA

943 71 48 77  
Zure  
Zerbitzura

# 03-04 ikasturterako aurrematrikulazioa zabalik 0-3 urte bitarteko Udal Haur Eskolan



- Epea: otsailaren 3tik otsailaren 14ra
- Non: JOSE ARANAN (ALMEN)  
San Pedro auzoa z/g  
Tel.: 943 71 44 86


Instalazioak ikusi edo entrebista pertsonala egin nahi izanez gero, aurretik telefonoz abisatu.



ESKORIATZAKO  
UDALA

HEZKUNTZA  
SAILA

**LUIS EZEIZA LHI**  
2-12 urte bitartekoentzat



**KURTZEBARRI BHI**  
12-16 urte bitartekoentzat



**MATRIKULA EPEA: otsailaren 3tik 15era arte**



- Integratzailea: euskal kultura garatzen du, eta beste kultura batzuk era egokian geureganatu eta garatzen ditugu.
- Pertsonen arteko harremanak bultzatzen ditugu.
- Sortzailea eta autonomia.
- Ikastetxeen arteko loturak sustatzen ditugu.



Telefona / Faxe: 943 71 49 38  
e-maila: 012065aa@hezkuntza.net

Telefona / Faxe: 943 79 57 40  
e-maila:012945aa@hezkuntza.net



Debagoieneko Euskal Eskola Publikoa

GOIESKOLA



## PAUSOKA HAUR ESKOLA

# 2003-2004 ikasturterako izena emateko epea zabalik

Izena ematea: otsailaren 3tik 14ra, 09:00etik 11:00etara eta 16:00etatik 18:00etara  
BELORRIETA 8an GAUDE. 943 77 03 77



### TALDE EGOKITUAK

- Otik 3 urtera bitarteko haurrak talde egokietan

### ORDUTEGI ZABALA

- Goizeko 7:30etik 18:00ak arte
- Ordutegia moldatzeko aukera

### JANGELA ZERBITZUAK

- Bertan gertatutako janaria
- Haur bakoitzari egokitutako dieta

### EGUTEGI ZABALA

- Egutegi eskolarraz gain, Gabonak, Pazko astea eta uztailaren 24rarte zabalik.

### LOGELA



**PAUSOKA HAUR ESKOLA**  
Euskaraz hazi eta hezi